

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Hainbat baliabide desberdinen bitartez, gure zerbitzuaren komunikazio kanal nagusiak sare sozialak izango dira. Haiei esker, eskaintzen dugunari buruz berri eman eta informazioa zabalduko dugu.

Interesatuekin harremanetan jartzeko internet eta sare sozialak erabiliko ditugu. Hauen bidez informazioa eskeini eta azalduko dugu. Nahiz eta aldizkari, irrati eta telebista bidez iragarkiak egin, Instagram, Tik Tok, Youtube, eta antzeko aplikazioak izango dira komunikazio kanal nagusiak. Horrez gain, gaur egun sare sozialek duten garrantzia kontuan hartuta, publizitatearen ehuneko handia bertatik zuzenduko dugu.

“Influencer”-en bitartez zuzenduko dugu propaganda. Lelo, blog, traola, jokuak eta zozketetaz baliatuko gara gure kanala erakargarriagoa egiteko. Mezua zehatza izango da; gure proiektuaren berri ematea eta elkarlanean arituz itsalabarrak garbitzea. Zabor bilketak, emaitzak eta datuak euren atala izango dute eta beti beste informazioarekiko garrantzi handiago batez igorriak izango dira.

Kantinplorak ekoizteko, enpresa espezializatu bat azpikontratatu dugu. Beraiek diseinatu, ekoitzi eta banatzen dute. Ondorioz, guk soilik ordaintzeaz eta gure oniritzia emateaz arduratzen gara.

Halaber, Udal, kantinplora eta garraio enpresak bezalako erakundeekin mezu eta bideo deien bitartez harituko gara nagusiki. Ordea, hitz egin beharreko gaia garrantzi handikoa balitz, diru-laguntzena edo helikopteroarena adibidez, aurrez-aurre burutuko genuke bilera gaizki-ulertuak saihesteko eta dena argi azaltzeko.